



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Idazkaritza ■

Irteera : Z/21-03701

Data : 2021/07/12 - 13:35:15

Esp.kodea: 2021LENP0004

Gaia: "Mondragon City Challenge" lehiaketa  
Hasiera eguna: 2021/02/12

## JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

**"Arrasateko Udalak Mondragon City Challenge egitasmoarekin kolaboratzeko diru ekarpena egitea eta CM Gipuzkoa SLrekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea (2021LENP0004)**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Hezkuntza eta Enplegu Batzordeburuaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

"Mondragon City Challenge, Ekintzaitza Kooperatiboko Nazioarteko Lehiaketa, batxilergoko, erdi eta goi mailako lanbide heziketako eta unibertsitateko ikasleei zuzendutako egitasmo bat da, maila internazionalera irekia. Bere helburu nagusiak dira gazteen artean ekintzaitza eta kooperatibismoa sustatzea, horiek lortzeko lehiaketa formatu batez baliatuta. Labor azalduta, lehiaketa honetan datza: ikasleek, taldeka, kudeaketa kooperatiboko ereduetan oinarritutako enpresa-proiektu bat garatu behar dute; bere osotasunean, eta taldeen artean lehiatu, programako oinarriek ezarritakoaren arabera. Proiektua 2021ean zehar garatuko da, fase desberdinekin, eta bukaerakoa, proiektu irabazleei saria ematea izango da. Proiektuaren sustatzailea eta antolatzailea El Diario Vasco da, eta bere taldeko CM Gipuzkoa SL enpresa arduratzen da programaren zuzeneko kudeaketaz. Horrez gain, proiektua babesten duten erakunde laguntzaileak eta mentoreak daude, guztien artean proiektua finantzatuko dutelarik: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Mondragon Korporazioa, Mondragon Unibertsitatea, KONFEKOOP-Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, EKGK-Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua, ASEKOOP-Kooperatiba Aholkulari Seniorren Elkarte, Garaia PT, Saiolan, Azaro Fundazioa, Laboral Kutxa, Rural Kutxa, Eika Koop. E. eta Ecenarro Koop. E. Lehiaketaren izena, "Mondragon City Challenge", gure herriak kooperatibismoaren alorrean mundu mailan duen erreferentzialtasuna islatu nahi du, eta horren harira, Arrasaten egingo dira proiektuari lotutako ekitaldi guztiak. Hau da proiektuaren aurrekontua:

Kontzeptua	Inportea
Idazkaritza teknikoa	30.000,00€
Komunikazioa	125.000,00€
Produktzioa	30.000,00€
Bidaia eta dietak	40.000,00€
Sariak	15.000,00€
<b>GUZTIRA</b>	<b>240.000,00€</b>

Udaleko Gobernu Taldeari irizita "Mondragon City Challenge" egitasmoak Arrasateko herriari proiektzio handia eman ahal diola, eta horrek bertako enpresa, unibertsitate eta bestelako eragileei onurak erakarri ahalko dizkiela, aukerako ikusi du Arrasateko Udalak parte hartzea ekimen honetan

<b>Kodea</b>	BB21/00813	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON	
<b>Data</b>	2021/uzt./12	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAL0L5.J.kvBC	
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAL0L5J.kvBC">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAL0L5J.kvBC</a>			
Dokumentu honen balioztasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2021LENP0004

Gaia: "Mondragon City Challenge" lehiaketa  
Hasiera eguna: 2021/02/12

erakunde laguntzaile moduan, eta hala jasota geratu zen 2021eko otsailaren 16an Alkateak emandako ebazpenean; horrez gain, proiektua finantzatzen laguntzeko 40.000 €ko ekarpena egitea da Udaleko Gobernu Taldearen asmoa, 2021eko Udal Aurrekontuko "1.0910.471.241.30.00- Mondragon City Challenge" kontusailaz baliatuta.

Guzti hau azalduta, hauxe proposatzen zaio Tokiko Gobernu Batzarrari:

- **LEHENA:** Arrasateko Udala "Mondragon City Challenge" ekimena finantzatzen laguntzeko 40.000 €ko diru ekarpena egitea, 2021eko Udal Aurrekontuko "1.0910.471.241.30.00- Mondragon City Challenge" kontu sailaz baliatuta.
- **BIGARRENA:** Ekarpene ekonomiko hori diru laguntza izaeraz egitea, "Mondragon City Challenge" ekimenaren antolatzailea den CM Gipuzkoa SLren alde.
- **HIRUGARRENA:** Arrasateko Udala eta CM Gipuzkoa SLren artean "Mondragon City Challenge" ekimenari lotutako lankidetzaren xehetasunak jasotzen dituen hitzarmena sinatzea."

*Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.*

*Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.*

*Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurtsio aurkeztu dezakezu.*

Idazkaria



ANA BELEN HIDALGO CORRAL  
12/07/2021

CM GIPUZKOA SL  
PORTUETXE BIDEA, 2  
20018 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN

<b>Kodea</b>	BB21/00813	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON	
<b>Data</b>	2021/uzt./12	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAAL0L5.J.kvBC	
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAL0L5J.kvBC">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAL0L5J.kvBC</a>			
Dokumentu honen ballotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				